

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko maiatzaren 7a

IV. urtea • 154. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**GERMAN ARBULU / BASERRITARRA**  
*"Mankomunitateak hartuta du dagoeneko Zubillagako hiltegia ixteko erabakia" /9*

**Goienka2a**  
 Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa egiten ari dira

**ASTEKO GAIA: SISTEMA BERRIA OSPITALEAN /3**

## Larrialdietan, kasu larriak lehenengo

Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetara jotzen duten gaixok aldaketak sumatuko dituzte. Hain zuzen, aurrerantzean, kasu bakoitzaren larritasuna neurtuko dute, eta gaixok larritasunaren arabera atendituko dituzte medikuek. Horretarako,

gaixoak, iristerakoan, galdera batzuk erantzun beharko ditu. Sistema berri horren asmoa da gaixoen segurtasuna bermatzea, eta premia handiena dutenek gutxien itxaron behar izatea. Ibarreko ospitalea Estatuko bigarrena da hori ezartzen. /3



## Lasterka eta euskaraz Oñatiraino

Arrasate-Oñati herri lasterketa jokatu da bihar arratsaldean. 22. aldia izango du. 18:30ean hasiko da Mondragoeko Portaloian eta Oñatiko plazan amaituko da. 11 kilometro eta 300 metro egin beharko dituzte nagusiek. Iaz, 400 haurrek baino gehiagok eta 150 nagusik hartu zuten parte, eta aurten ere antzeko parte-hartzea espero dute antolatzaileek, Laixan eta AED euskara elkarteez. Beti bezala, kirola, festa eta euskara uztartuko ditu geroago eta ospe handiagoa duen herri lasterketa honek. Horren harira, *Asteleheneko Goienkaria*-k lasterketaren gaineko informazio osatu eta zabala eskainiko du astelehenean. /12

Eraman Focus bat 12.200 eurogatik eta gura baduzu

**EZ ORDAINDU 2005era arte**

Horrez gain, hilaite honetan  
**Ford Focus Trend TDCi 100 ZP 5 ate,**  
 15.000 eurogatik.  
 aire girotua, 4 aire-poltsa, Blade kontrola, ABS, IPS, lainotako faroak eta Irrati CDA.

**Hil amaierara arte bakarrik**

Gozatzeko pentsatuak, irauteko eginak

**MUGARRI AUTOAK**  
 Araba Etorbidea, z/g  
 ARRASATE

**BARRUTIK EZAGUTU GAITZAZU**

Jardunaldi irekiak

OÑATI	DATA	ORDUA/EGUNA	ESKAINITAKO TITULUAK
Erreserba ezazu eguna: • 943 71 80 09 • Mireia Igarzabal	maiatzak 13	18:00 osteguna	• Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura • Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa • Zuzendaritza Idazkaritza

www.mondragon.edu

## Zauriturik ez Arrasateko auto istripu larrian

Istripu larri eta ikusgarria gertatu zen atzo, eguena, goizeko zortzietan Arrasateko saihesbidean, Fagor Arrasate eta Fagor Automotion enpresetarako sarrean. Seat Malaga batek, Renault Clio batek eta Ford Galaxy batek elkar jo zuten. Hiru gazte zihozzen autoetan, eta, zorionez, ez zitzaizen ezer gertatu. Istripuak auto ilara luzeak sorrarazi zituen, hala ere.



Horrela geratu ziren Renault Clio eta Ford Galaxy autoak.

XABIER URZELAI



## Denbora guztia bidaiatzen eman nahi dut.

Mila modu daude **biharko egunari** aurre egiteko. Baina guztiek dute zerbait bateratsu: ongizate-nahia. Horretarako dituzu **Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatu** berriak. Gaurtik bertatik etorkizuneko pentsioa prestatzen hasteko behar dituzun errentagarritasuna eta segurtasuna lortzearren. Hala, hauxe besterik ez duzu pentsatu beharko hemendik aurrera: zeure erretiroaz nola gozatu.

**KUTXA**  
**AURREIKUSPEN-PLAN**  
**BERMATUAK**

**Bihar zer egin behar duzu?**

*Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatuak Kutxa Bi BGAEra daude atxikita.*

# Larritasunari begira hartuko dituzte gaixoak Larrialdietan

## Kasuen balorazio sistema berria ezartzen dihardute ospitalean

LEIRE KORTABARRIA

**D**ebagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzua askoz eragingarriagoa izango da aurrerantzean, eta premia handien duten gaixoei lehenetsuna emango die. Helburu horrekin berri dute ospitaleko arduradunek larrialdi zerbitzuko antolakuntza, Estatuan berria den sistema batekin: triaje sistemarekin. Palma de Mallorcako ospitale baten ondoren, ibarrekoa Estatuko bigarren ospitalea da hori ezartzen.

Triaje sistema da larrialdietara joaten diren gaixoak larritasunaren arabera klasifikatzea. Eta helburua da gaixoak atentzia euren egoeraren larritasunaren arabera.

### SATURAZIOARI AURRE EGIN

Berritasun horrek hainbat arazori erantzun nahi die. Iñaki Agiriano zerbitzuko arduradunak honela diosku: "Larrialdietako arazo handienetako bat saturazioa zen. Horrek hainbat ondorio zekartzan: itxoste denbora luzatzea eta hainbat gaixoren arriskua areagotzea; larrialdi zerbitzuaren lan gaitasunaren beharokada eta lan-presio handiagoa; gaixoak zerbitzuarekin pozik ez egotea; gastuen igoera handia... Hori dela-eta erabaki dugu triaje sistema ezartzea".

Dirudenez, saturazio horren arrazoi bat da larrialdi zerbitzua ez dela beti modu egokian erabiltzen: gaixo asko ez dira ambulatorki joaten, zuzenean larrialdietara baizik.



### 1. DATUAK EMATEA

Larrialdi zerbitzuetara iristerakoan, lehen pausoa lehenengo bera da: heldu bezain laster, mostradorean norberaren datuak ematea. Segidan, erizainak dei egingo dio iritsi berriari triaje gelara sartzeko.

Osakidetzak dio hori gertatzen dela "askoz errazagoa" delako larrialdietara joatea, "erosotasuna" dela-eta. Betiere Osakidetzaren arabera, hainbatek hori egiten du zapatu edo jaiegunetan, nahiz eta kasua larria ez izan. Horrek, arduradunek dioten bezala, zerbitzuaren saturazioa ekarri zuen. Iaz, Debagoieneko Ospitaleak 31.000 kasu atentitu zituen larrialdietan, asteburuetan astegunetan baino gehiago: eguneko batez bestekoa 85 kasu izan ziren eta domeketakoa, berriz, 120.



### 2. PAUSO BERRIA: TRIAJEA

Ordenagailu programa batek gaixoaren sintomak baloratu eta, larritasunaren arabera, 1etik 5era bitarteko klasifikazio baten sartuko du. Gaixoak egin beharreko gauza bakarra da erizainaren galdera erraz batzuei erantzutea.

*Kasu bakoitza modu objektiboan baloratu ahal izango da, eta kasu larrienak lehenago atentitu*

### INFORMAZIO OSOA GAIKOARI

Arazoen zergatia bata zein beste izan, Espainiako Triaje Sistema delakoak konpondu egin gura ditu guztiak. Gaixoak ez du

aparteko ezer egin beharrik izango: heldu bezain laster, bere egoeraren gaineko galdera batzuk erantzun beharko ditu, eta konstante batzuk hartuko dizkiote. Ordenagailu programa batek gaitz posibleak ezabatu eta aukera handien dituen arazoa identifikatu ostean, honako bost egoera batean sailkatuko du: I. maila, benetako larrialdiak, unean ikusi behar direnak; II. maila, bizitza arriskuan jartzen duen gaixotasuna, lehenbailehen atentitu beharrekoa; III. taldea, gaixotasun larria izanda, bizitza

arriskuan jartzen ez duena; IV. maila, gaixotasun arrunta baina berezia; eta V. maila, gaixotasun oso arruntak. III.etik beherako gaixoei itxaron gela egon beharko dute, baina ordu erdiro euren egoeraren beste ebaluazio bat egingo dute erizainek. Gainera, aditza emango diote gutxi gorabehera zenbat denbora itxaron beharko duen.

### LANGILEAK, POZIK

Debagoieneko Ospitaleko larrialdi sailean diharduten langileek itxaropenez eta iritzi onaz hartu dute triaje sistema berria. Zortzi medikuk, 13 erizainek eta hiru laguntzailek osatzen dute lantaldea; erizain taldeak, adibidez, hiru lagun gehiago hartu behar izan ditu lan zama berriari aurre egiteko.

Arrasateko larrialdi zerbitzua buru-belarri ari da lanean egunotan, triaje sistema guztiz ezartzeko. Orain hiru bat aste hasi ziren horrekin, eta, oraingoz, ibarreko gehienondako ezezagun samarra da. Emaitzarik izateko goizegi bada ere, Iñaki Agiriano larrialdietako zuzendaria baikor agertzen da: "Lan polita egiten ari dira langile guztiok, eta jendea, pixkana-pixkana, hasi da antolakuntza berria ezagutzen. Jarrera ona izango dutela espero dugu". Hori bai, triaje sistema zer ez den ere azaltzen digu: ez da itxoste gela lehenbailehen hutsik uzteko pentsatutako metodoa. "Helburua ez da itxoste denbora orokorra murriztea, kasu larrienena baizik", dio.



IÑAKI AGIRIANO / ZERBITZUKO ARDURADUNA

*"Gaixoen segurtasuna bermatu nahi dugu"*

**D**ebagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuko arduradun Iñaki Agiriano uste du sistema berriak gaixoaren segurtasuna askoz hobeto bermatzen duela.

### Zein da triaje sistemaren helburua?

Helburu nagusia da gaixoaren segurtasuna bermatzea, arriskuak minimora murriztuko dira-eta.

### Itxaron denbora ere murriztu egingo da?

Helburua ez da itxaron denbora orokorra murriztea, baizik eta larrien dauden gaixoei gutxiago itxarotzea.

### Zein aldaketa sumatuko ditu gaixoak zerbitzuaren erabiltzean?

Berrebaluazioa egingo zaio; hau da, itxarongela dauden gaixoen egoera ordu erdiro gainbegiratzen da, aldaketarik izan den jakiteko. Horrez gain, gaixoak informazio osoa jasotzen du triaje sistemaren eta emango diren pausoen inguruan.

### Zein beste berezitasun ditu triaje sistemak?

Nagusiena da gaixoak klasifikatzeko modu objektiboan ematen digula, eta informazio orokorra ematen digula. Bestetik, sistema dinamikoa da; langileondako ulertzeko erraza eta erabiltzeko oso azkarra; gaixoaren kokapena erraz definitzen du bost mailako klasifikazioan; eta kasu bakoitzaren gaineko aurreikuspenak egiteko aukera hobea ematen digu.



MARIA JOSE ESTEBAN / ERIZAINEN ARDURADUNA

*"Gaixoen eta erizainon onerako izango da"*

**L**arrialdi zerbitzuko erizainek lsumatuko dute antolakuntza berriaren eragina. M<sup>a</sup> Jose Esteban taldeko arduraduna pozik dago aldaketarekin.

### Zenbat erizain zaudete sail horretan?

Hamar ginen, eta txandaka lan egiten genuen; baina aurrerantzean 13 izango gara, triaje sistemak errefortzu hori eskatzen zuen-eta. Orain, gure lanak denbora luzeago hartuko du: lehen, minutu pare bat ematen genituen gaixo bakoitzarekin; orain, galderak egin, konstante batzuk hartu... egin beharko dugu.

### Zertan aldatuko da erizainon lana?

Lehen, erizainek gaixoa hartu eta eba-

luazio azkar eta subjektibo bat egiten genuen. Sintomak galdetu eta, gure iritzi, zeukan arazoaren arabera atentitzen zuen medikuak. Orain, kasu bakoitza modu objektiboan neurtzeko tresna bat izango dugu. Horrek gaixoari berme handiagoa ematen dio, eta gure lana lehenengo erantzukizunaz libre uzten du. Hortaz, sistema hori gaixoen onerako izango da, eta baita erizainondako ere.

### Erizainok triajearekin moldatzen ikasi behar izan duzue...

Bai. Andorran ikastaro batean egon zen erizain bat, eta hark orain ospitaleko erizainak trebatzen dihardu. Ikastaroak egiten ari gara, batez ere, ordenagailu programa erabiltzen ikasteko.



Iaz Lazkaon ospatu zuten Gipuzkoako ikastolek Kilometroak 2003. Aurten, Orion eta Zarautzen ospatuko da jaia.

ARGAZKI PRESS

## Datorren urteko Kilometroak jaia Arizmendi ikastolak antolatuko du

*Oraindik ez dute ibilbidea zehaztu, baina Leintz ibarra zeharkatuko du*

OIHANA ELORZA

Pasa den otsailan jakin zuen Arizmendi ikastolak 2005eko Kilometroak berak antolatu behar dituela. Ikastolak berak 2001-2002 ikastaroan egin zion proposamena Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari, eta duela gutxi jaso du erantzuna.

Oraindik lan asko dute egiteko, baina dagoeneko hasi dira bazkide eta elkarrekin hitz egiten. Berez, hamar edo 12 lantalde antolatuko ditu Arizmendi ikastolak datozen hilabeteotarako: segurtasunaren lantaldea, kultura egitarauarena, azpiegiturarena, Kilometroak 2005 eguna bera antolatuko duen lantaldea, eta zirkuitua zehaztuko duena, besteak beste. Arizmendik 12 gune ditu, eta lantaldeetan 12 guneotako ordezkariak hartuko dute parte, irakasle, guraso zein ikasleek.

Uztaila bitartean sortuko dira lantalde hauek, eta bazkideekin eta Leintz ibarreko hainbat arlo-

tako talde eta elkarrekin batzarrak egingo ditu Arizmendi ikastolak uztaila bitartean, Kilometroak 2005 jaia guztien artean antolatzeko.

Ia guztia zehazteke dago oraindik, baina Arizmendi ikastolak aurreratu du sormen handiko Kilometroak jaia antolatuko duela. Sortzailea eta aldi berean Leintz ibarreko nortasuna gordetzen duen jaia. Hori lortu nahi du, behintzat.

Lantaldeak sortu eta berehala hasiko dira lanean. Hala ere, antolatuko dituzten ekitaldiak urritik aurrera egingo dira, Orrio eta Zarautzen egingo den aur-

tengo Kilometroak jaia pasa eta gero. Beraz, urriaren 3tik aurrera ikusi eta entzungo da Kilometroak 2005eko egitaraua.

### PROIEKTUA INDARTZEA DA HELBURUA

Egun, Haur Hezkuntzatik hasi eta goi mailako ikasketetara heltzen da Arizmendi ikastolaren eskaintza. Hau da, 0 urtetik 20 urte bitarteko ikasleak ditu, baina badira batxilergoa eginda dutenak eta goi mailako ikasketak egitera matrikulatzen direnak ere. Guztira 2.750 ikasle ditu Arizmendik.

Duela lau bat urte sortu zen Arizmendi proiektua, eta proiektu berri hau indartzea da Kilometroak 2005 antolatzeko arrazoi nagusia. Hezkuntza sistema hobetu nahi du Arizmendi ikastolak, bai kalitatea bermatuz eta baita zerbitzuak ugartuz ere. Honekin batera, elkarlanerako proiektuak indartu nahi ditu, eta etorkizuneko ikastolari begira jarri nahi du, askotatiko ereduak aztertuz.

*Sormen handiko  
Kilometroak jaia  
antolatu nahi du  
Arizmendi ikastolak*

## MCC taldeak 7.000 lanpostu berri sortu zituen 2003an

*2002ko jarduerarekin konparatuta, %11 gehiago*

MARIA AGIRRE

**Mondragon Corporacion Cooperatibak 2003ko balantzea atera du, eta hortxe jaso du datua: 7.000 lanpostu sortu zituen iaz. Lanpostuen hazkundera MCCren hiru taldeetan izan dela jasotzen du argitaratu berri duen txostenak.**

Mondragon Corporacion Cooperatibak 2001-2004 urteetarako plan estrategikoa egin zuen. Planean aurreikusi zuen tarte horretan 3.500 lanpostu sortzea.

2003ko amaieran, 68.263 lagun ari ziren lanean MCCn. Iaz, 7.000 lanpostu sortu zituen korporazioak, 2002ko jarduerarekin konparatuta, %11 gehiago.

Lanpostuen hazkundera MCCren hiru taldeetan izan dela dio korporazioak berak atera berri duen iazko balantzeak: industrian, finantzan eta banaketa taldean. Azken talde hau

hazi da gehien, eta hortxe dago Eroski supermerkatua.

Iaz, Consumer taldearen banaketa dela eta, 5.000 lanpostu galdu ziren, baina hala ere, banaketa taldeak emaitza onak lortu zituen lanpostuei dagokienez. 741 milioi euroko inbertsioa egin zuen iaz Eroskik; 155 denda eta beste 13 bidaia agentzia zabaldu zituen. Etekinie dagokienez, berriz, 108 milioi euro irabazi zituen.

Fagor etxetresna elektrikoek datuak ere onak dira. Izan ere, enpresa honek 2002an baino pixka bat gehiago fakturatu zuen. Espainiako merkatuan 526 milioi euro fakturatu zituen, eta %4,2 hazi zen. Atzerrian, aldiz, jaitsi egin zen fakturazioa, gutxi bada ere. Arrazoiak Europako herrialde nagusien krisialdia izan dela diote.

Fagor etxetresna elektrikoek 25,8 milioi euro inbertitu zituzten iaz. 2003. urte bukaeran 5,917 lagun ari ziren lanean.

ULMA Manutención, Koop. E.  
Oñati

### OHIKO BATZAR NAGUSIA DE IA

EGUNA: 2004ko maiatzaren 14a  
ORDUA: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena  
TOKIA: Oñatiko Santa Ana Antzokia

#### GAI ZERRENDIA

1. AURREKO AKTAREN ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2003KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2004KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2003KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEN FONDOEN (H.K.S.F) ERABILERA
7. EKONOMI ARAUBIDEN ESTATUTU-XEDAPENAK
8. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIK
9. ESTATUTU SOZIALEN 31, 52, 59, 62 ETA 64. ARTIKULUAK ALDATZEA
10. KOOPERATIBAKO BARNE-ARAUDIAREN 40 ETA 46. ARTIKULUAK ALDATZEA
11. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
13. ZAINZTA-BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
15. GALDERAK ETA ESKAERAK

Oñati, 2004ko maiatza

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Estatutu Sozialen eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketari buruzko informazioa bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da.

**MEMESA SL**

Industri hornidurak

943 71 24 25

*Carrión  
música, s.a.*

- Gitarrak, baxuak, amplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42  
Tel.: 945 23 07 49  
GASTEIZ



amaia corrales  
maite aldaz

### Psikologia kontsulta

- Familia, bikote eta bakarkako terapia
- Diagnostiko txostena
- Umeak, gazteak eta helduak

San Anton 10, 2. solairua. Oñati 943 78 01 55  
Usandizaga 29, 1-B. Donostia 656 90 49 50

# Sindikatuak kale bilkura egin dute azken lan heriotza salatzen

Hildakoak lan egiten zuen Ulmako lantokiaren aurrean egin zuten

JULEN IRIONDO

Joan den astean lan istripuan hil zen gazte oñatiarren heriotza salatzen, kale bilkura deitu zuten martitzenerako Debagoieneko sindikatu nagusiek. Lan istripu gehiago ez zioen pankartaren atzean 100 lagun inguru elkartu ziren.

Joan den astean gertatutako lan heriotza salatzen, kale bilkura isila deitu zuten martitzenerako, Oñatin, Debagoieneko sindikatu nagusiek. ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak deitutako elkarretaratzea Ulma Handling Systems lantegiaren aurrealdean egin zuten, Otadui zuhaiztian, lan istripuan hil zen mutil gazteak lana egiten zuen lantegiaren aurrean, hain zuzen ere.

Lan istripu gehiago ez zioen pankartaren atzean 100 lagun baino gehiago elkartu ziren. Eta horien artean zeuden Debagoieneko ELA, LAB eta ESK sindikatuak arduradunak, Egoitz Iturbe, Leire Ormazabal eta Juan Joxe Azkarate.

## AURTENGO LEHEN LAN HERIOTZA

Iker Lukas 32 urteko gazte oñatiarra Ulmako langilea zen, eta



Martitzenean Ulmaren aurrean egindako elkarretaratzea.

joan den egunean hil zen Madril, Cuetara gailera lantegian lanean ari zela. Makina bat muntatzen ari zela, zama gainera erori zitzaion.

Hego Euskal Herrian 19 lagun hil dira aurten lan ezbeharretan; eta Debagoieneko aurrenekoa izan da pasa den egunean hil zena.

Iaz bi lan heriotza izan ziren gure ibarrean, Osalan Laneko

Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen datuen arabera. Bergaran izan ziren bi heriotzak.

Guztira, 1.513 lan istripu izan ziren 2003an Debagoienean. Horietatik gehienak, 1.500 hain justu ere, Osalanen arabera xumeak izan ziren; hamar larriak; eta bat oso larria. Istripu gehienak Arrasaten eta Bergaran izan ziren.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Bizpahiru aste barru emango dute epaitu dituzten hamar oñatiarren sententzia

Seirendako absoluzioa eta beste laurdako isuna eskatu du fiskalak. Hala ere, epaileak ez du oraindik azken erabakia hartu, bizpahiru aste barru kaleratuko du sententzia. Epaileak fiskalak eskatutakoari kasu egiten badio, akusatuek errekurritu egingo dute erabakia. Hamar oñatiarrak eguaztenean epaitu zituzten, 2003ko ekainaren 14ko osoko bilkuraren osteko gertaerengatik.

### Asteburuan amaitzen da Herritarren Zerrendaren aldeko sinadura bilketa

Oñatin, Bergaran eta Aretxabaletan bihar, zapatua, da Herritarren Zerrendaren alde sinatzeko azken eguna. Aramaion, berriz, gaur eguerdian itxi da epea. HZ taldeak Europako hauteskundeetan Euskal Herria nazio gisa aurkezteko egitasmoa deitu du, eta 40.000 sinadura bildu nahi ditu.

### Osasun etxeak euskalduntzeko eskatuko du bihar EHEk Arrasateko ospitalean

Euskal Herrian Euskaraz taldeak osasun etxeen euskalduntzea eskatzeko eskaera herritarra egingo du, zapatuan, 12:00etatik 14:00etara, Arrasateko ospitalean. Debagoieneko EHE taldeak dio ibarrean oraindik eremu asko direla erdal hizkuntzen haztegi; besteak beste, epaitegia, posta zerbitzuak eta osasun etxeak.

### Jesus Atxa euskaltzale aretxabaletarrak Manuel Lekuona saria jasoko du bihar

Euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lana eskertu nahi dio Eusko Ikaskuntzak Jesus Atxa aretxabaletarri sari honekin. Iruñean emango diote Manuel Lekuona saria, bihar, zapatua. Duela 84 urte jaio zen Jesus Atxa, baina oso gazte zela utzi zuen Aretxabaleta. 60ko hamarkadan euskarazko eskolak eman zituen.

Lirainek

GORPUTZ-TRATAMENDURAKO

**LPG teknika aurkezten dizu**

Gorputz osoarentzako onuragarria: organismoaren eta azalaren funtzio naturalak berreskuratzen lagunduko dizu.

**Tratamendu integrala eskeintzen dizugu:**  
**DIETETIKA KONTSULTA PERTSONALIZATUA + LPG TEKNIKA**

ESKA EZAZU AURREKONTUA, KONPROMISORIK GABE

Debagoieneko estetika-gunerik haundiena. Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1

20500 ARRASATE

Tel: 943 79 52 17

## BALDINTZAK

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun direnek bakarrik parte hartu ahal izango dute zozketan.

Baldintza bakarra da harpidedun izatea.

Maiatzaren 17an hasiko dira zozketak.

Egubakoitzeko Goienkaria-n eta Asteleheneko Goienkaria-n, aurreko astean saridun izan direnen zerrenda argitaratuko da.

**Goienkaria**  
ASTELEHENEKO  
astelehenean, aste bukaera osoa



902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera  
Ordutegia: 09:00etatik 20:00etara

# Asteleheneko Goienkaria-ren astero-astero



Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun guztien artean astero-astero sariak zozketatuko ditugu.

## Zorte on!



### sarrerak



Kultura, aisialdi eta kirol ekintzetarako sarrerak.



akoitzera  
21:00etara

# Harpidedunen txokoa

## harpidedunendako ro sariak!



Harpidedun egiteko:  
902 36 38 51  
Urte amaierara arteko harpidetza 20€



eta uztailean...

# adi!

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun guztien artean bidaia zoragarri bat zozketatuko dugu.



## ANTZUOLA

**Udal Etxegintzaren etxebizitzetako giltzak eman dituzte dagoeneko**

Udalak babestutako etxebizitzetako jabekideetako batzuei aurreko asteko eguenean eman zizkieten giltzak. Beste batzuk, berriz, gaur, egubakoitza, eskriturak sinatzekoak ziren. Guztira, hamasei etxebizitza egin ditu Udalak aldi honetan, eta 48 dira dagoeneko Udalak bultzatuta eraiki diren etxebizitzak.

Aipatzekoa da, bestalde, Udalak beste 20 etxebizitza egiteko asmoa duela. Horixe aurreratu zuen Jose Angel Zabalo alkateak GOITBko *Herriz herri* saioan, aurreko astean. /A.I.



## ARRASATE

**Garagartzarren eta Fagorren tirabiran, epailea auzokoen alde**

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak atzera bota du Garagartzan egin zuten arau subsidiarioen aldaketa. Fagorrek Garagartzan duen lantegia handitzeko egin zuten aldaketa hori. Baina auzotarrak ez zeuden ados. Izan ere, Fagorrek eta Udalarekin hitzartu zutenaren arabera, lantegia behar beste handituko du Fagorrek, betiere, zenbait baldintza betez gero. Baldintzetako bat zen lantegiaren eta auzoaren artean berdegunea sortzea, lantegiak auzoari egiten dion eragina txikitzeko. Fagorrek eta Udalak, aldiz, beste eranskin bat hitzartu zuten. Haren arabera, auzotarrek hitzartutako berdeguneari zati bat kendu eta 110 ibilgailurendako aparkalekua egingo zuten. Horretarako aldatu zituzten arauok. Auzokoen errekurtsoa ipini zuten, eta epaileak euren die arrazoia. /U.M.

## ARAMAIO

**Azken egunotan lapurrak ibili dira Aramaioko zenbait lekutan**

Joan den asteburuan eta astelehen gauean, Aramaioko hiru lekutara lapurrak sartu ziren. Batetik, kultura etxeke sarraila apurtu eta barrura sartu ziren, ustez, KZGunera sartu nahian. Baina hara iristeko bi ate zabaldu behar zituzten, eta hori ez zuten lortu. Bestetik, astelehen gauean, Anboto tabernara eta okindegira sartu ziren. Tabernatik, besteak beste, dirua eraman zuten; okindegian, berriz, ezer gutxi zegoen lapurtzeko eta kolonia pote bat besterik ez zuten hartu. Hala, kaltetuek salaketak ipini dituzte. /U.M.

## ELGETA

**Hamabost egunen barruan hiru aldiz dirua lapurtu dute gaztetxean**

Apirilean, hamabost egunen barruan, hiru aldiz sartu dira lapurrak Elgetako gaztetxera, eta dirua ostu dute. Gaztetxeko kideek salatu egin dute gertatutakoa eta Ertzaintzak ikerketa zabaldu du. Ertzainen esanetan, beste hainbat gaztetxetan ere ostu dute azkenaldian. Lapurretak izan arren, Elgetako gaztetxekoei ez diete lanerako gogorik kendu, eta ekintzak antolatzen segitzen dute. Gaur, bariakua, 18:00etan bideo emanaldia eta kafe tertulia izango dira. /I.A.

## OÑATI

**Bitoriano Gandiagaren omenaldiarekin hasiko da maiatzeko musikaldia**

Domekan, Bitoriano Gandiagaren bizitza taularatu dute, kantuz eta antzezlanen bidez. Gontzal Mendibil musikariak zuzenduko du *Elorri loratu* izeneko ikuskizun berezi hau, eta kolaboratzaile asko izango ditu. Pello Zabalak, adibidez, Gandiaga olerkariaren rola beteko du, eta haren bizitza eta lanari ahotza ipiniko dio. Musika, berriz, Marife Nogales kantariak eta Rossini abesbatzak jarriko dute. Horiez guztiez gain, beste hamar musikari, antzezle eta dantzari hartuko dute parte Bitoriano Gandiaga fraide poetari domekan egingo zaion omenaldian.

Gandiagaren omenezko ikuskizun honek maiatzean zehar egingo den musikaldiari emango dio hasiera, eta kontzertu gehiago egingo dira hila-betean zehar. Maiatzaren 16an, esaterako, Xabier Lizaso piano joleak kontzertu pedagogiko bat eskai-

niko du; 23an, Utopia hari orkestraren kontzertua; 30ean, Pandora duoaren emankizuna.

## UDABERRIKO MUSIKALDIA

Aurten, 26. aldiz egingo da udaberriko musikaldia. Lehen hiru urteetan jaien ostean egin ziren, baina gero Gorpuzti jaien bezperan antolatzen hasi ziren. Hasieran, urte batzuetan Oñatin eta bestetan Arantzazun egiten ziren musika kontzertu hauek, baina azkenean Santa Ana antzokian finkatzea erabaki zuten. Hauek ere Santa Anan egingo dira, guztiak ordu beran, 19:30ean. /O.E.

## Zertzelada

**Udaberriko musikaldiaren barruan, kontzertu bana egingo da Santa Ana antzokian datozen lau domeketan. 19:30ean hasiko dira guztiak.**

## BERGARA

**Goiko Estazioko eraikina berritzea erabaki du Bergarako Udalak**

Goiko Estazioko eraikina berritzeko proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuen Udalak astelehenero gobernu batzordean. Mikel Larrañaga arkitektoaren proiektuaren arabera, herriko musika taldeendako hamar lokal izango dira Goiko Estazioko eraikinean. Eraikina bi solairu izango ditu eta horietako

bakoitzean bost gela eta komuna egongo dira. Musika taldeendako lokalak 11,6 m<sup>2</sup> eta 12,15 m<sup>2</sup>-koak izango dira. Lanen aurrekontua 181.000 euro inguru da. Proiektu teknikoa idaztea, berriz, 10.400 euro kostatu da. Herriko hainbat musika taldek erabiltzen dute Goiko Estazioa, entseguetarako. /EDU MENDIBIL



Goiko Estazioko eraikina egoera txarrean dago.

## ARETXABALETAKO

**Animaliak edukitzea arautzen duen ordenantza onartu gura dute**

Ohiko osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzak datorren astelehenetan. Hainbat gai eztabaiatuko dituzte, gehienak hirigintzari dagozkionak, baina tartean animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udalen ordenantza onartu gura dute.

Martxoan bandoa jarri zuen Udalak txakurren jabeei hainbat aholku gogorarazteko. Orain, ostera, arauak ezarriko ditu, eta leku publikoetan zela egon behar duten animaliek eta arauak bete ezean ezarriko dituzten isunak zehaztu dituzte ordenantzaren. /M.A.

## ESKORATZA

**Mankomunitateko kamioiak industrialdean daude dagoeneko**

Mankomunitateko kamioiak Eskoriatzako industrialdean daude aste hau ezker. Hutsik dagoen pabilioi baten sartu dituzte kamioiak, eta gainera, Mankomunitateko langileen aldagelak ere egokitu dituzte egonaldirako. Arrasaten dagoen Akeiko zabor-tegian kutsatutako lurrik berreskuratzen dihardute; osasunarendako eta ingurumenarendako dagoen arriskua erabat deuseztatu edo behintzat onartutako mailara jaitzi gura dute. Bitartean, bi edo hiru hila-betez egongo dira bertan, Udalaren esanetan. /Z.V.M.

## GATZAGA

**Aurtengo udal aurrekontua 419.036 euro izango da**

Leintz Gatzagako aurtengo udal aurrekontua onartu dute: 419.036 euro. Horren harira, inbertsio handiena Gatz Museora bideratuko dute: 30.000 euro, hain zuzen. Bigarren inbertsio handiena hirigintza, antolaketa eta gestioa bideratuko dute: 24.000 euro. Ur eta gasaren hornikuntza sarea, Leintz Gatzagako Udalen Pilotalekua eta baserrietarako sARBIDEEN hobekuntza dira, besteak beste, aurtengo aurrekontuaren zati bat jasoko duten beste inbertsio asmo batzuk. /Z.V.M.



**U**ztailean erabakiko du Mankomunitateak Zubillagako hiltegia ixten duen edo ez. Baserritarrek eta harakinek zabalik eduki nahi dute. Hala, datozen bi hilabeteotan, inplikaturak dauden alde guzietan elkarrekin hitz egingo dute.

OIHANA ELORZA

#### Alde guztien arteko negoziazio epea zabaldu da.

Bai, datozen egunetan hitz egingo du Mankomunitateak gurekin. Baserritarrek eta harakinekin hitz egingo du, eta nik uste dut kontsumitzaileekin ere hitz egin beharko duela, azken batean, eurak baitira produktua erosten eta kontsumitzen dutenak.

#### Hala ere, erabakia hartuta dagoela uste duzu?

Nik baietz uste dut. Lehenago ez bada geroago, baina azkenean itxi egingo dutela uste dut. Mankomunitateaz gain, Eusko Jaurlaritzak ere hiltegiak pribatizatzearen alde dago. Une honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan hamar hiltegi daude. Horietatik zazpi udalena dira, eta horiek ixtearen aldeko txostena argitaratu du Jaurlaritzak. Beraz, Mankomunitatea ixtearen aurka jartzea lortzen badugu ere, Jaurlaritzaren indarraren kontra egin beharko dugu gero.

#### Zergatik itxi nahi ditu?

Hiltegi publiko hauek ez direla errentagarriak dio Jaurlaritzak. Kendu egin behar direla dio, eta beste era bateko hiltegiak zabaldu behar direla, beste zerbitzu batzuk ere ematen dituzten hiltegiak, hain zuzen ere. Horrez gain, Eusko Labe-laren aldeko okela izan behar dela dio.

#### Eta orain artekoa ez da labelduna?

Bai, horixe. Zubillagan, okela gehiena bertakoa da, Debagoienekoa eta baita ingurukoa ere. Arabatik ere etortzen dira, esaterako. Gasteizko hiltegia pribatizatu zute-nean, ganaduzale eta baserritar batzuk ganadua Zubillagara ekartzen hasi ziren, hemen hiltzeko. Azken batean, kontua da hiltegi batek edo besteak zein tratatu ematen duen.

Hiltegi txikietan bertako okela da hiltzen dena. Pribatueta eta handietan, ordea, %70 kanpotik datorrena da, Gaztelatik, adibidez. Zubillaga bezalako txikietan, aldiz, %90 inguru bertakoa da, hemengoa.


#### Europa ere kalitatearen alde dagoela diozue.

Urte bukaeran, abenduan, hiltegi txikien aldeko txostena aterako du Europak. Martxoan, txosten horren gaineko idatzi bat atera zuen.

Txosten honek hiltegi txikiek kalitatea bermatzen dutela jasotzen du, eta zabalik eduki behar direla defendatzen du. Kalitatea lortu aldera, animalia ahalik eta kilometro gutxi garraiatu behar dela dio txostenak, ahalik eta ibilbide motzenak egin behar direla. Garraioak ganaduari sortzen dion estresa eta sufrimendua ekidin egin behar direla. Animalia ongi zatea zaindu behar dela. Gainera, arautegi bat dago idatzia animalia ongi zatearen inguruan, eta horri lotuta egin du Europak txosten hau. Gainera, hiltegi txikiak handiak baino errentagarriagoak direla ere badiu.

#### Mankomunitateak eta Jaurlaritzak, ordea, ez direla errentagarriak diote.

Guk ditugun datuen arabera, iaz, 2003an, 15 miloi pezetako galera izan zuen



OIHANA ELORZA

## German Arbulu

BASERRITARRA ETA EHNE-KO ORDEZKARIA

# “Mankomunitateak hartuta du dagoeneko Zubillagako hiltegia ixteko erabakia”

BI HILABETE PROPOSAMENAK EZTABAIDATZEKO  
“Hiltegia ixten badute, ez dakigu zein alternatiba ditugun, gastuak nork ordainduko dituen. Ez dakigu ezer. Egingo ditugun bileretan jasoko dugu informazioa”

OKELAREN KALITATEAREN ALDE  
“Hiltegi txikiek kalitatea bermatzen dutela dio Europak ere. Zubillaga bezalako hiltegietan, hiltzen den %90 hemengoa da”

Zubillagako hiltegiak. Mankomunitatean zazpi udal daude, zazpi udalek ezin diote kantitate horri aurre egin? Ez da ikaragarriko kopurua.

Osasun aldetik ere neurri batzuk hartu behar direla diote, eta berrikuntza batzuk egin behar direla. Aurtengo urtea eta datorrena, 2005, homologatuta daude osasun aldetik, Jaurlaritzaren Osasun Sailak homologatu ditu. Azterketa eta auditoria batzuk pasa beharko ditu, baina datorren urte bukaera arte homolo-

gatuta dago. 2006an zerbait egin behar den edo ez, Osasun Sailak berak esan beharko du. Orain, berriz, seguritate mailan ere hobekuntzak egin beharko direla esaten hasi dira. Hiltegia ixteko aitzakien bila dabilta.

Bestetik, nik uste dut Jaurlaritzak ere jakingo duela Europak zer dioen, baina askatasuna izango duela Europako txosten edo gomendio hori hemen aplikatzeko edo ez. Beraiek horrela uste izango dute, behintzat.

#### Zubillagako hiltegia ixten badute, nora eraman beharko duzue okela? Zein aukera eman dizue Mankomunitateak?

Duela urte pare bat zabaldu ziren itxieraren aldeko zurrumurruak, eta orduan entzuten zen inguruan zabalduko zutela beste hiltegi bat. Bergara, Elorrio eta Durango aipatu ziren, adibidez. Une honetan, ordea, ez dago beste aukerarik. Hiltegi berri bat eta handia egingo dutela bai, baina non zabalduko duten ez da argitzen. Beraz, oraingoa urte honetan itxi behar badute, guk ez dugu beste alternatibarik ikusten.

Gainera, berria egin edo zabaldu behar den denboran ere, ez dakigu zer egin edo nora joan behar dugun. Ez dugu horrelako informaziorik jaso. Datozen bi hilabete hauetan egingo ditugun batzarretan, Mankomunitateak informazioa eta aukera batzuk emango dizkigula uste dut. Alternatiba horiek izan beharko dute orain arteko hiltegiak ematen dizkigun zerbitzuak bezain onak, edo hobeak. Okerrera ezin dugu egin. Hori garbi daukagu.

#### Nork ordainduko ditu hiltegi pribatuko gastuak?

Gai honen inguruko aukerak ere, Jaurlaritzak eman beharko dizkigu.

Hiltegi berria ez da denongandik hurbil egongo, batzuei urrutiko zaie, edo zaigu. Beraz, garraioaren kostua nork ordainduko du? Hori ere ez da argitu, oraindik. Bestalde, orain, hilegiko gastuak harakinak ordaintzen ditu: harakinak kiloko horrenbeste ordaintzen du. Publikoak denez, laguntzak jasotzen dituzte, baina pribatua izanez gero, gehiago ordaindu beharko dute harakinek? Informazio hori ere ez dugu jaso.

#### Beste zein alde dago hiltegi publiko eta pribatuaren artean?

Pribatuak diruari begiratuko dio gehiago. Enpresa pribatuaren helburua etekina ateratzea da. Baserritarren, harakinen eta erosleen arteko harremanari eusteko, oso garrantzitsua da gertuko hiltegi txiki bat izatea. Gertutasunak konfiantza ematen du. Prozesu osoa ikusi eta jarraitu dezakezu. Okela hiltegi handi batera eramaten bada, ordea, inork ez daki zer gertatuko den.

Ganaduari eta produktuari ematen zaien tratua ere ezberdina izango da, industrialagoa. Hiltegi berriak beste zerbitzu batzuk ere eskainiko dituela aipatzen da: zatikatzea, enbasatuak eta antzerako zerbitzuak. Harakinak aukeratu egin beharko du okela nola jaso gura duen: pakeetan sartuta, kanalean edo zatika, adibidez. Eta zerbitzuaren arabera ordaindu beharko du. Baina oraindik ez dakigu zerbitzu berri hauek aukera izango diren edo derrigorrean horrelaxe izango den. Baina hori ere ez dakigu.

#### Beraz, argi duzuen bakarria ixteko aukera dagoela da?

Bai, hori da. Dauden alternatiba edo aukeren inguruan, ez dakigu ezer, ez dugu informaziorik jaso, oraindik.

Bi hilabete hauetan, alde bien proposamenak entzungo dira.

#### Zein proposamen egingo duzue zuek?

Oraintxe dugun bera, hiltegia zabalik edukitzearen aldekoa, hain zuzen ere. Gainera, diru aldetik ere Jaurlaritzaren dako hiltegia zabalik edukitzea izango da aproposena. Handitu edo berri egin behar izanez gero ere, ez dut uste gastu handirik egin beharko denik.

#### Zein egoera bizi dute EAeko beste sei hiltegi publikoak?

Durango eta Tolosan ere, adibidez, hasi dira hiltegia ixtearen aldeko zurrumurruak, eta jendea mobilizatzen hasi da. Tolosan, esaterako, herri barruan dago egungo hiltegia, eta industrialdera aldatzea proposatzen dute. Durangon, ordea, Mankomunitatea eustearen alde dago.

## Gutunak

## Ibarreko zerbitzuak

Azken egunotako albisteetako bat izan da Gipuzkoako Foru Ogasunak egoitza berria zabaldu duela Bergaran. Antza denez, ekipamendu sofistikatu eta moderno apaindu dute, gainera, eta, gogoratzin dudanez, diputatu nagusiak esan zuen inaugurazio ekitaldian zergadunoi ahalik eta erraztasun handienak eskaintzen saiatu direla, egoitza berriak 600 metro koadro dituela, e.a.

Kontua da bulego berri hau, aurrekoa bezala, Bergaran dagoela kokatua, eta honen inguruan zera adierazi nahi dut:

Ez dut ezagutzen zer aldagai hartu duten kontuan erabakitzeke egoitza Bergaran kokatzea, baina zalantzan jartzen dut erabaki hori hartu duenak gure ibarra ezagutzen duela edo inoiz Debagoieneko errepide tristeetan barrena ibili dela. Erabaki hori hartu duenak berba egin dezala, esate baterako, Oñatin bizi den norbaitekin, eta galde diezaiola zelan kontontzen den busean Bergarara joateko, zenbat tardatzen duen, e.a.

Ulergaitza egiten zait herritarrendik eskura egon nahi duen zerbitzua hainbeste erabiltzerengandik hain urrun kokatzea. Ze, 16/18 kilometroko ibilbideak egin behar ditu Oñatin bizi den batek, edo 12 kilometro Arrasaten bizi denak, edo 15/20 Aretxabaleta/Eskoriatzan bizi denak. Leintz Gatzagan bizi denak, osterara, egun erdi galduko du. Jakina, erabilzaile pribilegiatua Bergarako da. Baina, agian, hobe litzateke Haziendako egoitza Arantzazun egotea. Behintzat, erraz aparkatuko genuke.

Haziendako egoitza berriaren inaugurazio ekitaldian, horrelako inbertsioa herritarrei erraztasunak emateko egin dutela esan zuen azalpenak ematea eskertuko genuke zergadun askok. Era berean, azaltzea zenbat kostatu zaigun egoitza berrioi, eta kokapenaren gaineko erabakia hartzekoan, zer hartu duten kontuan.

Aldi berean, hemengo alkateei galdetu nahiko nieke hainbat zerbitzu publiko ibarreko bazter batera eramatearen arrazoiak. Esaterako, A-1 autobidearen eraikuntzan, Maltzaga eta Bergara arteko zatia zergatik lehenetsi duten, Eskoriatza eta Araba arteko zatiaren aurrean, biak ere beharrezkoak baina bigarrena askoz ere premiazkoa denean, arrazoi askorengatik. Batzuetan, badi-rudi irizpide erradial edo zentrokideak hartzen direla kontuan eta hiriburutik urrunen dagoena dela lehentasun txiki-ena duena.

Antzeko gauzak esan ditzaket epaitegi, jabetza-erregistro, kiroleko ordezkariak, ongizate zerbitzu, polizia, hazienda edo bestelako zerbitzuen gainean; IAT beraren gainean ere bai. Zerbitzu publiko hauen guztien kokapena ez da Debagoieneko herritarrendako egokiena. Bestalde, zerbitzu hauen inguruan

sortzen diren lanpostuen gainean ere beste horrenbeste esan genezake.

Ondo legoke GOIENKARIAn irakur ahal izatea gai hauen inguruko erreportaje sakonak eta baita beren burua aipatuzat jo duten politikoen iritzia gai hauen gainean.

JOSE RAMON MENDIZABAL  
Arrasate

Euskal presoak  
Euskal Herrira

Ez da inoiz erraza izan gure senide presoek frantziar zein espainiar estatuetako espetxeetan bizi behar izan duten egoera. Gorrotoan eta mendekuan oinarritutako espetxe politika berezi eta ankerrari aurre egin behar izan diote, baina egoera gogorra jasanezina bihurtu da. Martxoaren 11ko Madrilgo gertakariak aitzakia aparta izan dira oraindik eta eskubide urraketa gehiago ezartzeko espainiar estatuko espetxeetan dituzten euskal preso politikoei.

Gaur egun 698 euskal preso politikoko daude euren herritik ehunka eta mila kilometrorara, geroz eta urrunago. Hauetatik, 8 baino ez Euskal Herriko espetxeetan. Sakabanaketa politikak senide eta lagunon istripu bat eragiten du asteburuko. Espainiar estatuko espetxeetan, euskal preso politikoen %85 lehenengo graduaren sailkatuak eta %35 isolamendu galerietan dituzte. 56 euskal preso politikoko, berriz, guztiz bakartuta.

Bakartze honen helburua garbia da, gure senideen indefentsioa areagotzea. Hauxe eta Txus del Bado euskal preso politikokoak martxoaren 11ko gertakarien ostean jasan zituen hiru eraso saiakerak salatuzko, Albaceteko espetxean dituzten euskal preso politikokoek 33 egun luze burutu zuten gose grebaren arrazoiak. Valentzia IIIan ere gure senide presoek gose greba mugagabeari eman zioten hasiera isolamenduaren eta bakartze egoeren amaiera eskatzeko. Gauza bera egin du Aranjuezeko espetxean duten Gorka Martinez Aedo euskal preso politikokoak ere, zeinak 7 egun eman dituen gose eta egarri greban. Bizitza bera arriskuan jartzera behartzen dituzte euren oinarritzko eskubideak berma daitezen. Bitartean, Euskal Herriko alderdi politikokoak eta erakundeak aldi behineko adierazpen antzuak egitearekin konformatzen dira.

Ezin aipatu gabe utzi preso gaixoei egiten ari direna. Fiskalak berak inongo oztoporik jarri ez badu ere Manu Azkarate euskal preso politikokoari baldintzapeko askatasuna emateko, Gomez Bermudez epaileak neurri arbitrario bezain ankerria hartu du, 92. artikulua onartu beharrenean, Azkaratek gaixotasun larri eta sendaezina duela onartu duen arren.

Espetxeetan bizi den egoera larriarekin amaitzeko ezinbestekoa da euskal preso politikokoak Euskal Herriratzea eta, aldarri hau inoiz baino ozenagoa izan dadin, ezinbestekoa dugu indarrak batu eta urratsak ematen hastea. Ezinbestekoa azken ostirala euskal preso politikokoak Euskal Herrira ditzaten eskatzeko baliatzea.

Elkartasuna bera legez kanporatu dutenean, gure eskerrik zintzoenak azken egubakoitzetako elkarretaratze hauetan zuen elkartasuna adierazten diguzuenoi, espetxeetaraino gure senideak ikusteko, zuen babesa eta elkartasuna adierazteko, ehunka eta milaka kilometro egiten dituzuenoi, ezinbestekoa duten Euskal Herriarekiko zilbor-heste zartzen guztiei.

BERGARAKO ETXERAT  
Bergara

Beroako etxebizitzaren  
erosleei

Aretxabaletako Beroa gunean etxebizitzaren bat erosi dutenei jakinarazi datorren eguaztenean, maiatzaren 12an, 18:30ean, bilera egingo dela Aretxabaletako udaletxeko ganbaran. Azken egunetan emandako pausoen berri eman go da bileran, eta aurrerantzean zer egin erabakiko da. Beroako etxeak saldu dituen promotorearekin dauden desadostasunen inguruan egingo da berba.

BEROAKO BIZILAGUN BATZUK  
Aretxabaleta

Askatasun eskubidea  
urratzen ari da

Espainiako Auzitegi Nazionalako Zigor Arloko 1. Sailak *Euskaldunon Egunkaria*-ren auzian Iñaki Uriaren baldintzapeko askatasunerako ezarritako bermearen inguruan Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak honakoa adierazi nahi du:

Zuzenbidearen aplikazio aldetik erabaki judizial arbitrario eta bidegabekoa da, justizian baino gehiago, gorrotoan oinarria duena.

Oraindik ere kartzelaratzeko irudiak ditugu gogoan, han hasi baitzen itxuragabekeria hau guztia. Bere lankideak bezala, Iñaki Uri ere gizarte harrematetik ezkutuka diharduen gaizkile baten antzera bahitu zuten; orduan, oinarritzko gabeko akusazio baten ondorioz, 14 hilabete daramatza kartzelan. Jarritako berme kopuruak ez du erreskatea eskatzen dela beste zentzurik.

Ez dira justizia egiten ari, eta zergatia ulertzen ez dugun zigorra ezartzen ari dira, askatasun eskubidea ere urratzeraino.

Lehenago eskatu izan dugun bezala, berriro ere Iñaki Uriaren askatasuna eskatzen dugu.

TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN  
FEDERAZIOA  
Euskal Herria

## Alternatiba berrira

Atxabaltako gaztiok be eskubidie Abadaukou ondo pasetako geure artien ta hau kontutan hartute, gazte batzuk elkartu gare aisialdirako talde alternatibo bat sortuz.

Ikusitxe zauen Atxabaltan, gaztiondako ekintza gutxi zeuzela ta honei konponbide bat emun guran Atxabaltako Gazte Ekimena izenez, ekintza desberdinak antolatuz, zelabaitx gazterixia aurrera atarateko asmue daukouen kuadrila batzuk juntauaz sortu dou taldie.

Batzarrak hamabost egunien behin kuadrila bakotzeko bi ta hilabeteko azken egubakoitzien danok elkarketan gare.

Atxabaltako gaztiei ate bat zabalduz eta besteik baik.

ATXABALTAKO GAZTE EKIMENA  
Aretxabaleta

## Zuzenketa

Joan zen astean gutun bat argitaratu genuen sail honetan *Presoek ere euskaraz bizitzeko eskubidea* izenburuarekin, Arrasateko Etxerat-ek sinatua. Gutun hartan aipatzen zen, besteak beste, presoak Euskal Herrira ekartzearen alde joan zen egubakoitzetako deitutako elkarretaratzeari atxikimendua eskatu ziela Etxerat-ek Arrasateko Euskalgintza Plan Estrategikoa osatzen duten taldeei. Eta baietza eman zutenen zerrenda zekarren. Zerrenda horretan, baina, Eskola Politeknikoak ere agertzen zen, eta Eskola Politeknikoak ez zion atxikimendurik eman elkarretaratzeari. Gutuna erredaktatzerakoan GOIENKARIAK egindako huts batengatik agertu zen txarto. Horrenbestez, barkamena eskatu nahi diegu bai Etxerat-i eta baita Eskola Politeknikoari ere.

GOIENKARIA

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkoroberebar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga, Natali Martinez,  
Izakun Bolinaga, Ziortza Martin,  
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi

# Arrasate-Oñati herri lasterketa, bihar

Ibilbideak 11 kilometro pasatxo ditu eta Diego Garciak du orain arteko errekorra: 34 minutu eta 25 segundo

OIHANA ELORZA

**A**urten ere korrikalari askok hartuko dute parte Arrasate-Oñati herri lasterketan. Dena antolatuta dago. 11 kilometro eta 300 metro ditu nagusien ibilbideak, eta gutxiago gazteenak. Egunean bertan ere eman daiteke izena. 18:30ean hasiko da, Portaloian, zapatuan.

Arrasate-Oñati herri lasterketak gero eta arrakasta handiagoa izaten du urtetik urtera. Debagoieneko jendeaz gain, inguruko eta urrutiko korrikalariak ere hartzen dute parte. Frantziakoak, Miranda de Ebrokoak eta Iparaldekoak daude, adibidez, parte-hartzaileen artean. Baita azpeitiarrak ere. Korrikalari asko etorzen dira Azpeititik.

Iazko lasterketan, 400 hurrek baino gehiagok eta 150 nagusik hartu zuten parte, eta aurten ere bide beretik doa. Askok eman dute izena dagoeneko, baina beste askok egunean bertan emango dute, urtero gertatzen den moduan.

## SARI ASKO

Helmugan sartzen diren lehen hiru korrikalariarentzat, lehen Lai-



GOIENKARIA

Azken urteotako arrakastari eutsi nahi diote aurten ere antolatzaileek.

xankide eta AEDkideendako eta errekorra hausten duenarentzat egongo dira sariak, besteak beste. Zenbakia bueltatzen duten guztiendako kamiseta bana ere egongo da. Umeez, aldiz, *Berria*

egunkariak zozketatuko duen Port Aventura-ko bidaia irabaz dezakete. Euskal Herriko beste lasterketa batzuetako korrikalari gaztetxoak ere sartzen dira zozketa honetan.

## ASTELEHENEAN, ZABALAGO

*Asteleheneko Goienkaria*-k bihar, zapatua, egingo den Arrasate-Oñati lasterketaren gaineko informazio zabalak ekarriko du. Irabazleen izenak, sailkapenak

## Lagun arteko lasterketa

Oñatiko lagun talde bati bururatu zitzaion, duela 22 urte, Arrasate-Oñati lasterketa antolatzea. Duela hamar bat urte, Laixanek hartu zuen ardura hau, *Jantzi kirola euskaraz* lelopean.

Elite mailako korrikalariak hartu izan dute parte lasterketa honetan; tartean, Diego Garciak, Garin anaiek, Ramon Jausorok eta Maria Luisa Irizarrek.

Azken bi urteotan Aitor Uribesalgo iurretarrak irabazi du.

eta egunak emango duen guztia: parte hartzaileen iritziak, argazkiekin ilustratutako kronika..., hau da, lasterketa luze eta zabal jorratuko du, beste inork baino sakonago.

ekintzaile

txekintek

**ZUREKIN BENTURAN, ZURE IDEIA ENPRESARIALEAN LAGUNTZEN ZAITUGU**

Idea enpresarial bat baduzu eta ez badakizu nondik hasi... idea garatzen eta martxan jartzen lagunduko dizugu. Proiektu enpresarialentzat, TXEKIN programa. Oinarri teknologikoa edota berritzailea duten industriaren eta industriari loturiko zerbitzuen sektoreko proiektuentzat, TXEKINTEK-EKINTZAILE.

### Industriaren eta industriari loturiko zerbitzuen sektoreko proiektuak

Informazioa eta eskaerak:

BIC BERRILAN: 943 000 999 - 943 820 606 - [www.bicberrilan.com](http://www.bicberrilan.com)

SAIOLAN: 943 712 072 - [www.saiolan.com](http://www.saiolan.com)

### Proiektu enpresarialak

Informazioa eta eskaerak:

[www.txekin.net](http://www.txekin.net) - Tel: 943 48 22 87

[www.gipuzkoa.net/ikasmina](http://www.gipuzkoa.net/ikasmina)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

SPRI



# GRUPO **RKUZ**

1950  
Zure etxea da  
2004



**RKUZ**  
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

**ETXE** MOBIL  
MUEBLES ALTZARIAK

Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



**RKUZ**  
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**RKUZ**  
ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA



expert 

FAGOR 

# Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 7a

Kultura  
eta  
aisialdia



Maiatzaren  
7tik 14ra



## BERTSOTAN GAZTETXEAN

### III. PLAZATIK GAZTETXERA TXAPELKETA EGITEN ARI DIRA, ETA BERGARAKO GAZTETXEAN JOKATUKO DA BIGARREN KANPORAKETA SAIOA ZAPATUAN

**E**lgeta, Bergara, Deba eta Mutrikuko gaztetxeek parte hartzen dute aurtengo Plazatik Gaztetxera Bertsolaritza Txapelketan. Joan den zapatuan egin zen lehenengo kanporaketa Elgetako gaztetxean, eta bihar izango da bigarrena, Bergaran. Finala Mutrikun egingo da, maiatzaren 29an.

Bertsolaritza sustatzea eta bertsosendako gune berriak sortzea da txapelketaren helburua. Horrekin batera, Deba ibarreko lau herriren arteko lotura sendotu nahi dute. Eskola arteko txapelketarako garaia joan eta plaza aukera gutxi duten bertsolariak gonbidatu dituzte txapelketan parte hartzera; 28 bertsolari guztira. /15 /USOA AGIRRE





# Patagoniako dinosaurioak

ARGENTINA

El Boulevard  
Zentro Komertzialean,  
maiatzaren 6tik ekainaren 6ra

Munduko haragijalerik handiena. Eta "Dinosaurio"  
Disney pelikula ospetsuko maltzurra. Horiek eta baita  
gehiago ere ikusiko dituzu historiaurrera egindako  
bidaia liluragarrian. Gasteizen.  
Boulevard-ean, begirada guztien jomugan.

 el Boulevard

**Mef**

Egidio Feruglio Museo Paleontologikoa

Laguntzailea



ZTF-FCT  
Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Facultad de Ciencia y Tecnología

Komisariotza



Universidad de Salamanca  
fundación general

BERTSOLARITZA/ PLAZATIK GAZTETXERA

# Gaztetxeetan badu lekua bertsoak

JOAN DEN ZAPATUAN EMAN ZITZAION HASIERA TXAPELKETARI, ELGETAN, ETA BIHAR BERGARAN EGINGO DUTE BIGARREN KANPORAKETA

USOA AGIRRE

**P**lazatik Gaztetxera III. Bertsolari Txapelketa egiten ari dira. Joan den zapatuan jokatu zuten lehenengo kanporaketa Elgetan eta bihar izango da bigarrena Bergarako gaztetxean. Bertsolaritza sustatzeko eta bertsoak gune berriak irabazteko asmoz antolatu dute sariketa.

Mutrikuko bertso eskolak eta gaztetxeak (MUGA) sortu zuten Plazatik Gaztetxera izeneko txapelketa 2002an. Ekimen honek bertsolaritza sustatzea eta bertsoa plazatik beste gune batzuetara eramatea du helburu. Horretarako, bertso sariketa gaztetxeetara zabaltzea egoki iruditu zitzaion antolatzaileei. Eskola arteko bertso txapelketetan parte hartzeko nagusiegiak direnak eta gutxieneko maila duten bertsolariak gonbidatu dituzte txapelketara. Asier Ibaibarriaga antolatzaileetako bat da, eta zera esan digu: "Antolatzaileok begirale lana egin dugu, eskola artekoetan ondo aritu ziren bertsolariak eta bestelako txapelketetan ere maila ona eman zutenak gonbidatu ditugu txapelketara". Azkenik, Deba ibarreko lau herriren arteko lotura sendotzeko asmoa ere badu Plazatik Gaztetxera txapelketak. Izan ere, Elgeta, Bergara, Deba eta Mutrikuko gaztetxeetan kantatuko dute bertsolariak. Lehenengo hiruretan egingo dira kanporaketak eta finala Mutriku egingo dute maiatzaren 29an.

## GAZTEEN INPLIKAZIOA

Aurreko bi edizioetako esperientzia oso ona izan zela adierazi digu Asier Ibaibarriagak.



AITOR LIZARRALDE

Elgetan jokatu zen txapelketako lehenengo kanporaketa joan den zapatuan.

"Bertsolariak asko eskertu zituzten txapelketan parte hartzeko aukera ematea eta gaztetxeetan bildu zen jendeak ere oso erantzun ona eman zuen". Aurten, ordea, aldaketatxo bat izan du txapelketak; lehenengo aldiz parte hartzen dute Elgeta eta Bergarako gaztetxeek. Elgetan jokatu zen lehenengo kanporaketa, eta Bergaran izango da bihar bigarrena.

Txapelketaren arlo teknikoa Mutrikuko eta Ermuko eskolen erantzukizuna da, baina saio bakoitzaren antolaketa herrian herriko gaztetxearen ardura da.

Hala, gaztetxeetako jendea inplikatzeko lortzen da; gaiak sortu, gaitzartzaile lana egin eta lantaldeak osatu behar izaten dituzte gaztetxeetakoek. Ibaibarriagak esan digunez, "beste saio batzuei begira laguntzaile sare bat sortzen da modu horretan".

## PLAZARAKO ENTRENAMENDUA

Saioa hasi aurretik, afaria egiten dute bertsolariak gaztetxera hurbiltzen diren guztiarekin batera. Afarian gazteek elkar ezagutzen dute eta urduritasunak alde batera uzteko giroa sortzen da. Edozelan ere, sariketak ez du bertso

afari formaturik. Taula gainean kantatzen dute bertsolariak, plazan kantatzen dutenerako entrenamendu gisa; gaztetxetik plazara joateko gero.

## Onenen moduan

**S**aioak gaztetxeetan jokatu arren, txapelketa serioa da Plazatik Gaztetxera sariketa. Eta horrela izanik, bertsolariak ere lan serioa egin behar izaten dute kanporaketetan. Egin beharreko lana bertsolari guztiendako bera da. Hala, aurre-saioetan ondorengo lana egin behar du bertsolari bakoitzak: ofizioka hiru bertso zortziko nagusian; ofizioka hiru bertso zortziko txikian; hasierako puntua emanda bi bertso osatu zortziko txikian; eta gai bati bi bertso, doinu eta neurri librean.

Bertsolari bakoitzak egindako lana neurtzeko epaimahaia ere badago. Aitzol Astigarraga, Uxue Alberdi eta Asier Ibaibarriaga arduratuko dira bertsolari bakoitzari puntuazioa emateaz. Baina guztia ez da joko: saioaren aurretik afari ederra egiten dute gaztetxean bertan.

## Hurrengo saioa, Bergarako gaztetxean

**A**urten hirugarren aldiz antolatu dute Plazatik Gaztetxera Bertsolari Txapelketa, baina Elgeta eta Bergarako gaztetxeek parte hartzen duten lehenengo aldiz izango da. Joan den urtean Elgoibar, Soraluze, Deba eta Mutrikuko gaztetxeek hartu zuten parte; aurten, Elgoibar eta Soraluzeko gaztetxeen lekua hartu dute Elgetakoak eta Bergarakoak.

Elgetan egin zuten txapelketako lehenengo kanporaketa. Jon Unanue, Oihana Bartra, Mikel Arrillaga, Oier Azula, Enaitz Alustiza eta Xumai Murua izan ziren lehenengo saioan. Oihana Bartra zuzenean pasatu zen finalera. Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean egingo da bigarren kanporaketa: Gorka Lazkano, Andere Arriolabengoa, Peru Madalena, Jokin Labaien, Xabier Astigarra eta Ander Lizarralde izango dira kantari.



GOIENKARIA

Bergarako kanporaketa, zapatuan 22:30ean Gaztetxean.



## LKS-INGENIERIA OHIKO BATZAR NAGUSIA

### DEIALDIA

EGUNA: 2004ko maiatzaren 14a.

ORDUA: Lehenengo deialdia 10:30ean eta bigarrena 11:00etan.

TOKIA: Arabako Teknologia Parkean, 1 Eraikineko Auditorio Aretoan

### EGUNEKO AZTERGAIK

- 1.- 2003ko maiatzaren 16ko Ohiko Batzar Nagusiko Aktaren onepeneri buruzko txostena.
  - 2.- Aktaren onepenerako bazkideak izendatzea.
  - 3.- 2003ko ekitaldiko memoria, emaitzen balantze eta kontuak eta Gestio Txostena aztertu eta onartzea.
  - 4.- Soberakin Netoak banatzea.
  - 5.- Heziketa eta Sustapenerako Fondoa banatzea.
  - 6.- Ekonomi Erregimeneko Estatutu Xedapenak.
    - Ekarpinak.
    - Kapitalerako ordainketa.
    - Kapitalerako ekarpenen eguneratzea.
  - 7.- Bane Araudiaren aldaketak onartzeko proposamena.
  - 8.- Estatutuaren arabera Zaintza Batzordeko berritzea
  - 9.- Kontu-auditoreak izendatzea
  - 10.- AIC (Ingeniaritza eta Aholkularitza Agrupazioa) Koop. E.ri buruzko txostena.
  - 11.- MCCri buruzko informazioa.
  - 12.- Galderak eta eskaerak.
- OHARRA: Bazkide guztiak jasoko dute OHIKO BATZAR NAGUSIAk hartu beharreko erabakien proposamena.

Jon Igarza

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria

Arrasaten, 2004ko martxoaren 25ean.

# Maiatzak 7-14

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## MATRIKULAK

### ARRASATE

► **Arte batxilergoa** antolatu du Arrasate-Aretxabaleta Institutuak. Laugarren batxilergo modalitatea izango da. Aurrematrikula zabalik dago astelehenera arte. Argibideak, 943 79 44 47 edo 943 79 83 00 telefonoetan.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Durango-Zumarraga trenbidea** delako berbaldia egingo du Juanjo Olaizola Euskal Tren Museoko zuzendariak eguenean, hilak 13, Olanan etxean, 19:00etan.

### ARAMAIO

► **ETB kantxa txapelketaren barne** lau t'erdiko hainbat partidu jokatu dira gaur, egubakoitza, 21:15ean. Bihar, zapatua, umeek jokatu dute, 11:00etan.

### ARETXABALETA

► **Lurraren aldeko solasa** hitzaldia egingo du Eguzki taldeko Alberto Friasek eguenean, hilak 13, Loramendiren egoitza, 19:00etan.

► **Lan poltsa** osatuko du Loramendi elkarteak. Curriculumak bidali honako helbidera: Loramendi Euskara Elkarteak; Durana 11; Aretxabaleta.

► **44an jaiotakoek** batzarra egingo dute maiatzaren 15ean, zapatua. Taberna Berrin bazkalduko dute. Izena ematea jabetxean bertan da. 10 euro aurreratu beharko dituzue.

► **Acogida amorosa al enfermo** hitzaldia deitu du Arrasateko Artzapez-barrutiak eguztenerako, hilak 12, parrokiako lokaletan, 19:30ean.

### ARRASATE

► **Rifeko azken emakume eltzegileak** dokumentalaren emanaldia izango da bihar, zapatua, Monterronen, 19:30ean.

► **Uribarriko teileriaren gaineko** hitzaldia egingo du Alfredo Morazak etzi, domeka, Monterronen, 12:30ean.

► **Ciudad Juarez (Mexiko) hiriko emakumeen hilketen** gaineko bideo emanaldi eta solasaldia izango dira

hilaren 12an, eguztena, Emakume Txokoan, 18:00etan.

► **Arizmendiko batxilergoko ikasleek** moda desfilea egingo dute eguenean, Amaia Udál Antzokian, 18:00etan, ikasbidaian joateko.

► **36an jaiotako emakumeek** ospakizuna izango dute hilaren 22an. Izena emateko, joan Muruamendiaraz gozotegira. 10 euro ipini behar dira.

### BERGARA

► **EHNA bulegoa** bihar zabalduko dute. Irizar jauregian izango da, 11:30-13:30.

► **49an jaiotakoek** bazkaria egingo dute maiatzaren 15ean, zapatua, Tartufo jabetxean. Herri-autobus zerbitzua izango da. Izena emateko, jo jabetxera edo deitu: 943 76 35 51.

► **Plazatik gaztetxera bertso lehiaketako** bigarren kanporaketa jokatu da bihar, zapatua, gaztetxean, 20:30ean.

### DEBAGOIENA

► **Kometa bat ikusteko** Gorlara irteera egingo du Iltargi taldeak gaur, egubakoitza. Bergarako autobus geltokian bilduko dira, 21:00etan.

### ESKORITATZA

► **El otro lado de la cama** filmaren emanaldia eta berriketaldia izango dira gaur, kultura etxean, 18:00etan.

► **Jesusen jarrera gaixo eta urrunduen aurrean** berbaldia deitu du Arrasateko Artzapez-barrutiak eguztenerako, hilak 13, kultura etxean, 19:30ean.

### OÑATI

► **Santa Eskolastikako Ikasle Ohien Eguna** ospatuko dute ekainaren 5ean, eta txartelak salgai daude hilaren 25era arte honako lekuetan: Irizar, Altuna eta Urzelai estankoa; Luis, Portu eta Artxubi tabernak; eta Elkar Hezi ikastetxeko bi egoitzetan. 31 euro kostatzen dira txartelak.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Euskal Zeramikagileen I. Topaketaren barne**, honako erakusketak bisitatzeko aukera dago egunotan: etzira arte, Angeles Casasen

lanak, Harresi aretoan; maiatzaren 16ra arte, *Euskal Keramikagile Garaikideak* delako erakusketa izango da zabalik Monterronen; gaurtik domekara bitartean, Yanka Mikhailova belarusa-rraren erakusketa izango da Lasagabaster dendan; Maria Asuncion Manero errioxarrarena eta Andres Osle leondarrarena Ormazabal dendan. Bestalde, erakustaldiak ere izango dira: gaur eta bihar, raku egiteko labearen erakuntza, Herriko Plazan, 17:00etan; bihar, Japoniako raku teknika erabiliaz hainbat pieza egosiko dituzte, Herriko Plazan, 22:30ean; eta bihar eta etzi, umeendako zeramika tailerrak eta *Euskadiko Eltzegileak* erakusketa izango dira Monterron parkean.

### ARRASATE

► **Baratze kritikoa** erakusketa antolatu dute Arizmendi ikastolak eta Nafarroako Mugarik Gabe taldeak hilaren 10etik 14ra bitartean. Kultura etxean izango da, 18:00-20:00.

### BERGARA

► **Merkataritza txikia** margo erakusketa dago zabalik etzira bitartean, kultura etxean.

*Udaberriko Kanpaina Handia*

**FITERO BAINUETXEA**  
NAFARROA. Maiatza eta ekaina. Astelehenetik ostiralera. Mantenu osoa. Kanpoko igerileku termalerako sarrera barne. 0-2 URTEKO HAURRAK DOAN. 2-12 URTEKO HAURREK %50EKO DESKONTUA  
40€ Prezioa laguneko eta gaueko 6.655 Pta  
150€ Lau gauren prezioa 24.958 Pta

**TENERIFE** Prezioa pertsonako  
215€  
Maiatzaren 11ean. Maiatzaren 12ean. 8 egun-7 gau. Hegazkina Bilbotik. Hotela\*\*\*. 35.773Pta

**AZKEN ORDUKO BEREZIA** Maiatzaren 3tik 8ra bitartean egiten diren erosketarako bakarrik  
**CARIBE** Prezioa pertsonako  
549€  
REP DOMINICANA. 06/14tik 06/30ra. 9 egun-7 gau. Hegazkina Madritetik. Occidental Caribbean Village Hotela\*\*\*. Gosariak barne. 91.349 Pta

*Maite dut!*

**Viajes Eroski Bidaia**  
Grupo Eroski  
Kalitatea Bermatuta  
eskaintza gehiago [www.viajeseroski.es](http://www.viajeseroski.es)



### ► KONTZERTUAK

## FJORD ROCK TALDEAK MONDRAGOEN JOKO DU GAUR, EGUBAKOITZA

Fjord talde berria Euskal Herriko rock gogorraren eszenan bere tokia aurkitzeko asmoz jaio da, eta egiteko gai direna erakustera etorriko dira Arrasatera gaur, egubakoitza. Kontzertua eskainiko dute gaztetxean, 22:30ean. Fjord taldea ez da hasiberria, dena dela: euskal musikan zeresan handia izan duten taldeetako kide ohiek eratu dute. Horieta bat arrasatearra da: Ekon taldeko abeslari izandako Juan. Berarekin, Su Ta Gar taldeko bateria-jotzailea izandako Iban Zugarramurdi eta Etsaiak taldeko Mikel eta Keu. Taldearen izen bera daraman diskoa aurkeztuko dute gaur Arrasaten. Sociedad Alkoholikako Jimmiren laguntzarekin grabatu zuten. Ondarroako Keike taldeak ere joko du saio berean.

**Non:** Arrasateko gaztetxean. **Noiz:** gaur, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean.







**HILDAKOAK**


**Irene Arriolabengoa Larrañaga.** Aramaion, apirilaren 24an. 76 urte.  
**Iker Lukas Ugarte.** Oñatin, apirilaren 30ean. 32 urte.  
**Desidero Corbella Miguel.** Arrasaten, apirilaren 30ean. 83 urte.  
**Jose M<sup>a</sup> Gorostidi Zabaleta.** Oñatin, maiatzaren 1ean. 68 urte.  
**Dolores Tomas Saldaña.** Arrasaten, maiatzaren 1ean. 76 urte.  
**Felipe Badiola Lete.** Bergaran, maiatzaren 5ean. 76 urte.



**Julen Garcia San Jose**  
Ermua • Maiatzaren 2a • 3,200 Kg. • **Gurasoak:** Isidro Garcia (Ermua) eta Maria del Mar San Jose (Ermua). Argazkian, umea lehen-gusinarekin.



**Markel Alburquerque Altuna**  
Aramaio • Maiatzaren 3a • 3,515 Kg. • **Gurasoak:** Txema Alburquerque (Salamanca) eta Leire Altuna (Aramaio). Argazkian, umea amaren besoetan.




**Endika Ibaibarriaga Bengoa**  
Oñati • Maiatzaren 4a • 3,410 Kg. • **Gurasoak:** Jose Carlos Ibaibarriaga (Ermua) eta Idoia Bengoa (Bergara). Argazkian, umea aita-ren besoetan.



**Erik Zabaleta Igartua**  
Bergara • Maiatzaren 4a • 3,630 Kg. • **Gurasoak:** Joseba Zabaleta (Bergara) eta Marta Igartua (Bergara). Argazkian, umea aita-ren besoetan.



**Mari Carmen Romero** eta **Manolo Carrillo** aretxabaletarrek gaur betetzen dituzte 25 urte ezkondua. 1979ko maiatzaren 7an ezkondu ziren. Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik, eta oso ondo pasa urteurren eguna!



**Fabi Morales** arrasatearra eta **Asier Mena** eskoriatzarra bihar, maiatzak 8, ezkonduko dira Leintz Gatzagan. Ezkon ospakizunen ondoren itsas bidaia egitera joango dira. Zorionak, bikote, familiaren partetik, eta urte askotarako!



**Leire Olaizola** eta **Kepa Ezkurra** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Dorletako elizan. Eta ospakizunen ondoren, AEBetara joango dira eztei bidaian. Zorionak, bikote, bion koadrilen partetik!

**ESKER ONA**

**Agustin Etxeberria Biskalaza**

*Bergarako San Blas auzoko Zabale Behekoa baserrikoa*

Arrasaten hil zen 2004ko apirilaren 27an, 81 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

**Hermenegildo Olabarria Gisasola**

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 9an, 10:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.




*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKELA**

**Agustin Mungia Lopez**

Haren oroimeneko meza zapatuan, maiatzaren 8an, 19:00etan, Arrasateko San Andresko parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

**Frantziska Berezibar Altube**

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 9an, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

**Jose Alberdi Arrese-Igor**

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 9an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.



*Haren arrebak, Maria Luisa eta Juanita; anaia, Jabier; koinatua, Benjamin; eta koinata, Aliziak: Eskerrak eman nahi dizkizute aldeztatik, elizkizunetara joango zaretenoi.*

**URTEURRENA**

**Jose Alberdi Arrese-Igor**

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 9an, 10:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak**

Tel.: 943 76 19 95  
Faxa: 943 76 07 49  
**BERGARA**

**Txuringo Jatetxea**

**BEREZITASUNA:** txerrikumea eta bildotsa egur-labean  
 • Egunekó menua  
 • Asteburuetan menu bereziak  
 • Karta  
 • Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak

Osintxu  
Tel.: 943 76 48 63

Txinatar jatetxea  
**DRAGON ORIENTAL**



**Etxera eramaten dizugu janaria**

• Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik  
 • Gutxieneko eskaria 12 euro  
 • 1,8 euro etxera eramateagatik

• 30 euro baino gehiagoko eskarietan, garagardo txinatarra opari  
 • 40 euro baino gehiagoko eskarietan, botila bi txinatar likore edo garagardo txinatar bi opari

• 20 minutuan etxean  
 • Arrasaten bakarrik

**943 79 85 33**

Araba etorbidea 3 ARRASATE

## HITZGEZIDUNAK

Luma

	Auzo	▼	Gelditze	▼	* Deitura
	Sai		Nondar atzizkia		
	▶		▼		▼
	Erraza ez dena	▶			
	Gora!				
Orientabide	▼	Ohean buruan jartzeko	▶		
Momentu honetan		* Izena			
	▶			Ez eme	▶
				Trankil, bare	
Urtarril	▶			▼	
Anaia					
	▶			Barazki hostotsua	▶
				Zuberoako herria	
Neonaren ikurra	▶		Bete	▶	
Liburu euskarria			Iodoa		Haiek berak
	▶				Bigarren bokala
					Tutu
Kanpo, landa	▶		Garrasi	▶	
Herri nafarra			Atziki txikigarria		
	▶				Zakur
					N birritan
Bat	▶	Bidezidorra	▶		
Solairu		Roentgen			
	▶				Naizen honek

## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

### LAGUNAN ARDAU TXIKITUA

Oso lagunak ziran bixak. Beti alkarrekin. Baiñan bixetako bat urriñera eta denbora askorako jua bihar izan zan. Eta juaterakuan auxe kontseju au emon zetsan:

- Ara, aztu ez gaitxezen bata bestiakin, ik tabernara oianian, eskatu beti txikito bi, bata iretzat eta bestia nere izenian. Eta kafia artzerakuan bardiñ. Baita be kopia artzerakuan. Ik beti eskatu bi. Nik bardiñ eingo juat.

Eta tabernarixai emon zetsan esplikaziñua:

- Ara, bata neria dok, eta bestia lagun izenian.

Eta olaxen urte morodoxka baten... Egun baten, baiña, sartu da tabernara:

- Ekarrrik txikito bat bakarria.

Tabernarixak orduan.

- Zer, laguna il dok ala?

- Bai, zera! Medikiak edari guztiak proibitxu jestaz.. Orregaitxik, oiñ lagunana bakarrik eraten juat.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




### Zeinek beteko lituzke 100 urte?

Hona hemen jarraian Debagoiengan famatuak izan diren lau pertsonaia. Horietako batek, bizi izan balitz, 100 urte beteko lituzke aurten. Asmatuko ote zenuke zeinek?

- Telesforo Monzonek. Politikaria, idazlea.
- Jose Maria Arizmendiarretak. Kooperatiben sortzailea.
- Jokin Zaitegik. Idazlea.
- Pablo Urangak. Margolaria.

**Erantzun zuzena:** Telesforo Monzonek. 2004ko abenduaren 1ean izango dira 100 urte Monzon jaio zela. Arizmendiarretak 1915ean jaio zen; Jokin Zaitegi, 1906an eta Pablo Uranga 1861ean.

## SOLUZIOAK



Z	U	R	O	Z
A	N	X	I	•
R	•	Z	O	Z
U	H	O	•	A
E	•	L	A	R
•	E	A	S	E
A	Z	A	•	B
Z	•	L	E	L
R	•	A	I	N
O	K	R	•	O
L	•	Z	A	I
•	E	P	U	R
•	•	A	•	•

## BILABILA7



## ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Pazientzia izan eta jarraitu borrokatzen; izan ere, eta ezetz dirudien arren, markatuta zenituen hainbat helburu bete ahal izango dituzu. Bestalde, arazoak familiaritokoekin, ez zara-eta behar adina denbora egoten haiekin.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Hainbat bidaia egingo dituzu lan kontuengatik, baina ez dira zuk espero zenuen bezain positiboak izango; hori dela eta, triste eta etsituta egongo zara, egin duzun lanaren ordaina ez duzu-eta jasoko.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Oso aste onuragarria bizi izango duzu, eta dena ondo irtingo zaizu. Bestalde, bikotekiderik baduzu, zalantzak sortuko dira, bat baino gehiago zurekin irten guran ibiliko da-eta.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Zenbait arazo izango dituzu epaiketengatik edo agiri kontuengatik, baina ondo konponduko dira. Bestalde, bakarrik egon gurako duzu, hausnartzeko eta meditatzeke, zure buruarekin hobeto sentitzeko.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Ahalegin zaitzez buruan dituzun pentsamendu txar horiek uxatzen, egoerak diren moduan ikus ditzazu; ahalegin zaitzez positibo izaten. Bestalde, ustekabeko bidaia egin beharko duzu; hasieran ez duzu gurako bidaia hori egin oso ustekabekoa izan delako, baina azkenean oso gustura sentituko zara.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Lanean oso emaitza positiboak izango dituzu eta zure diru sarrerek galanki egingo dute hobera; horrela, zure buruarekin oso seguru sentituko zara.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Aldaketak izango dituzu lanean; ustekabeko aldaketak izango direnez, hasieran nahiko galduta ibiliko zara, baina epe luzera oso pozik ibiliko zara, batez ere, diru sarrera handiagoak izango dituzulako.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Zure bizitzako hainbat esparrutan ez zara batere ase sentituko, eta, hori dela eta, hainbat aldaketa egin beharko duzu eguneroko jardunean. Bestalde, ohikoa baino sexu erakarmen handiagoa izango duzu, eta bat baino gehiago zure atzetik izango duzu, zurekin gau bateko esperientzia bizi guran.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Oso estututa sentituko zara, konpromiso guztiak betetzeko adina denborarik ez duzulako izango; behar bezala antolatu beharko duzu zure jarduna.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Argi ibili dirua non inbertitzen duzun; izan ere, onura erakargarriak aginduko dizkizute, baina halako baten ikusiko duzu onurak ez direla hain handiak.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20




Hainbat bidaia edo irteera egingo dituzu, eta oso probetxugarriak izango dira guztiak ere, oso negozio onak egin ahal izango dituzu-eta.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Hezetasan arazoengatik, zenbait berrikuntza egin beharko dituzu etxean. Bestalde, oso nostalgiko eta sentibera egongo zara, eta gerta daiteke sentimendu horiekin bikotekidea ere aspertzea.



GIPUZKOAKO  
ASTROLOGI ELKARTEA



# GARBIGUNEA

amaiera onena zabor bereziarentzat

GARBIGUNEAK hiri hondakinen gaikako bilketako **debaldeko** guneak dira. Garbiguneak erabiliz gero, **birziklapena** erreztuko duzu eta hondakinei amaierarik onena emango diezu.

## zer biltzen da?

- |   |  |
|---|--|
| Sukaldeko olioak.   | Zurak.   |
| Kotxeko olioak (banakako erabilera).  | Ibilgailu EZ motordunen pneumatikoak.                  |
| Bateria, metagailuak eta pilak.   | Pintura, disolbatzaileak eta garbikariak.              |
| Aerosol, pestizidak...  | Gauza metalikoak (erradiadoreak, bizikletak, aulkiak). |
| Eskonbruak (adreiluak, lurra, kristalak...).                                    | Paper eta kartoia.                                     |
| Material informatikoa (pantailak, tonerrak, disketerak, CDak, video zintak...). | Plastikoak.  |
| Elektrogailuak (mota guztietakoak).   | Radiografiak.  |
| Ke-detektagailuak.  | Sakeleko telefonoak.                                   |
|   | Termometroak.  |
|   | Beira.   |

## zer EZ utzi

- Ibilgailu motordunen pneumatikoak.
- Tailer mekanikoetako olioak.
- Hondakin industrialak.

## ORDUTEGIAK

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA** 9:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:00etara.  
**LARUNBATAK** 9:00etatik 13:30etara. **ABUZTUA** •Arrasate: astelehen eta ostegunetan, 9:00etatik 13:30etara. •Bergara: astearte eta ostiraletan, 9:00etatik 13:30etara. •Oñati: asteazken eta larunbatetan, 9:00etatik 13:30etara.

JAI eta IGANDETAN Garbiguneak itxita egongo dira.

### Arrasate (Ibarreta)



### Bergara (S. Kristobal)



### Oñati (Urrutxu)



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



**Harmailatik**

ASTELEHENA 107 20:30 eta 22:30



**Goienan, herriz herri**

MARTITZENA 117 20:30 eta 22:30



**Iluntzean**

EGUENA 13 / 21:15 eta 23:15



**Gaurkoak**

EGUNERO / 21:00 eta 23:00

**Arrasate-Oñati lasterketak emandakoa ikusgai**

Arrasate-Oñati herri lasterketa jokatu-ko da bihar, zapatua. Debagoiendar askok bertatik bertara bizi izango dute proba, korrika eginez edo errepide alboan animatuz. GOITBk astelehenean emango dizue lasterketan gertatzen denaren berri.

**Aretxabaletako alkate Arritxu Olidenekin solasean**

Azken txanpan sartu da *Herriz herri* saioa. Martitzenean Aretxabaletari eskainitako programa egingo du Alberto Gorritibereak. Maiatzaren 25ean, bestalde, herri guztien gaineko saio bereziarekin esango digu agur *Herriz herri*-k.

**Erramun Martikorena abeslariari elkarrizketa**

Erramun Martikorena abeslari bai-gorriarrak bere bizitzako zaletasun biak egin ditu ofizio: artzaintza eta kantagintza. Horien gainean berba egingo du egunean, Aintzane Gardoki kazetariarekin, *Iluntzean* saioan.

**Egunak eman dituen albisteak, zehatz eta labur**

Eguneko berrien gainbegiratu egingo du *Gaurkoak* tartean. Albisteak zehatz eta labur aurkezten dira. Ohiko albistegiak ikusi ez dituztenendako, informazioa jasotzeko aukera paregabea. 21:00etan eta 23:00etan.

**TELEBERRIAK**

**Jose Luis Uribarrik ez du TVEko 'Eurovision' saioa aurkeztuko**

Hogeita hamar urte baino gehiago zeramatzan Jose Luis Uribarrik TVEko *Eurovision* saioa aurkeztu, baina aurten ez du aurkeztuko. Bere ordez, Beatriz Peckerrek aurkeztuko du, Radio 3ko zuzendariak. Uribarrik esan duenez, prentsan irakurri zuen ez zuela *Eurovision* saioa aurkeztuko.

**Informazio arrosaren gaineko kate tematikoa sortu dute**

Bihotzaren informazioari buruzko lehenengo telebista katea sortu dute Espainian. ONO kable bidezko operadoreak sortu du. Eguerdiko 12:00etatik gaueko 02:00ak arte, famatuak kontuak izango dira nagusi kate horretan.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Maiatzaren 7tik 13ra**

EGUBAKOITZA 7	ZAPATUA 8	DOMEKA 9	ASTELEHENA 10	MARTITZENA 11	EGUAZTENA 12	EGUENA 13
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz Ternuko uretan... euskaldunak arrantzan. Baleen arrantzaren inguruko erreportajea eskainiko digu saioak. 15:30 Lanabesak Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuak ezagutuko ditugu bertatik bertara. 16:00 Iluntzean Filgi Claverie Biarrizko Baletaren zuzendariarekin solasean aritu da oraingoan Aintzane Gardoki. 16:30 Sarrera doan 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratuz Ternuko uretan... euskaldunak arrantzan. Baleen arrantzaren inguruko erreportajea eskainiko digu saioak. 15:30 Lanabesak Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuak ezagutuko ditugu bertatik bertara. 16:00 Iluntzean Filgi Claverie Biarrizko Baletaren zuzendariarekin solasean aritu da oraingoan Aintzane Gardoki. 16:30 Sarrera doan 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Goienan, herriz herri: Aretxabaleta 14:30 Berriak 15:00 Herriz herri 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
22:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Goienan, herriz herri	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



**LASAGABASTER**

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

L a n b i d e H e z i k e t a



## Alde praktikoa landuko dugu.

“Bizitzan, kirolean bezalaxe, mugimendua eta jarduera desberdinak burutzea gustatzen zait. Neure burua ondo prestatu eta etorkizuna bide honetatik jorratu nahi dut, benetan praktikoa den ikasketa eredu bat aukeratuz. Arrazoi asko daude Lanbide Heziketa aukera onena dela pentsatzeko. Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa”.

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)

  
**Arizmendi** ikastola  
*geurea, zeurea*

## Atzeskua

USOA AGIRRE

### Joxe Mari Leturia/ Egur gaixotasunetarako teknikaria

**Z**enbat denbora darazazu egurrari zerren eta termiten kontrako tratamenduak jartzen?

Orain dela 7 edo 8 urte hasi nintzen lan honetan.

Tabernan lan egiten nuen lehen, baina istripu bat izan eta utzi egin behar izan nuen. Arotza naiz ni ofizioz, eta egurrak ezagutzen ditudanez, honetan hasi nintzen.

**Zer nahiago, taberna ala oraingo lana?**

Oraingo lana tabernakoa baino askoz errazagoa da. Tekniko moduan ibiltzen naiz orain, hara eta hona.

**Orain da zerren eta termiten garaia, ezta?**

Egia esan, urte guztian egon daitezke zerren eta termitak, baina hautsa ikusten denean hasten da jendea larritzen. Hotzberoa epeldu eta hezetasuna handitzen denean, orduan ugaritzen dira. Garai hau oso egokia da beraiendako.

**Ez da erraza izango intsektu txiki horiek akabatzea.**

Lehenengo aztertu egiten dugu egurrak zer-nolako eraso jasan duen, eta gero horren arabera tratamendua jartzen diogu. Egurra

garbi-garbi geratzen da horrela.

**Animalien babeserako elkartek ez zaizkizue kexatu inoiz?**

Oraindik ez. Intsektuak akabatzen ditugu, baina egurra zaindu ere egiten dugu.

**Orain modan daude egurrezko altzari zaharrak.**

Bai, garrantzi handia ematen zaie orain lehenengo altzariei. Horiek ere tratatzen ditugu eta gero zaharberritzera eramaten ditugu.

**Hobe, orduan, metalezko altzariak erosi.**

Horiek ere izaten dituzte arazoak; herdoila, adibidez. Altzari dotoreena egurra da, dudarik gabe.

**Egurrak ere ez dira guztiak berdinak izango.**

Ez dira guztiak berdinak. Baina hor garrantzia duena da egurra edo zuhaitza noiz bota zuten. Lehen, ilargiaren aldiak kontuan hartzen ziren, eta horrek

eragin zuzena du egurraren bizitzan. Orain, ordea, ez dago horretarako astirik eta nahi denean botatzen dira zuhaitzak.

**Badago egur asko kutsatuta dagoen herri edo bailararen bat?**

Ez, bereziki ez. Euskal Herri guztian izaten dira arazo zerren eta termitak. Eraikinen egurrezko egituretan sortzen dira gehienbat, eta horrelakoak asko ditugu Euskal Herrian.

**Lanean ez ibili arren, etxe batera sartu eta zerren edo termitarik ote dagoen begiratzeko duzu?**

Bai, nahi gabe hasten naiz begira zer ote dagoen. Askotan, lurreko tarima aztertzea joan eta inguruko altzariren bat ere kutsatuta dagoela konturatzen naiz.

**Izurrite handiren bat ikusi duzue sekula?**

Zerrenekin ez da izurritarik egoten. Baina termitak sortzen direnean, orduan izurritea segurua da.

**“Oraingo lana tabernakoa baino askoz errazagoa da. Hara eta hona ibiltzen naiz”**

**“Metalezko altzariek ere izaten dituzte arazoak; herdoila, adibidez”**

**“Lehen, ilargiaren aldiak kontuan hartzen ziren zuhaitza botatzeko orduan; orain ez dago horretarako astirik”**

► Bergara / 54 urte / Arotza da ofizioz

## PIPERRAUTSA

### A-1 autobidea

**Z**utitu egin dira eskoria-tzarrak eta aho batez kexatu, esan zitzaizkien autopistaren ordezkari beste bat datorkielako, hura baino askoz kaltegarriagoa. Kaltea bikoitza da: lur gehiago hondatzen du, eta bera hondatuago uzten.

Hau jakin eta berehala hasi ziren zuzenketak lantzen LKSren laguntzarekin. Baina epea oso laburra zen, laburregia. Orduan eskatu zioten Aldundiari bi gauza: zuzenketak aurkezteko epea luzatzea bi hilabetez eta, proiektua aldatu denez, ingurumeneko eragin azterketa berria. Aldundiak eman die 15 egun gehiago, eta ezetza azterketa berriari. Egutegian ez omen dago atzerapen aukerarik, eta aurrekontu agortu samarrak ez ei du onartzen soluzio tekniko konplexurik. Autopista egin behar da, eta eraikitze sistema ohiko eta baldarrekina. Zer ote dio honetaz Intxaurren Agenda 21 famatuak?

Ni guztiz bat nator eskoriatzarrekin. Sufritu dugu hamarkada luzez errepide eskasia latza. Irentsi dugu Debagoienak behar zuen errepide azkarra autopista izatea, ordaintzekoa. Baina ezin dugu onartu, gainera, autopista bat zaharkitua. Eta zaharkitua delako ingurumenaren erasotzailea.

Har dezala Aldundiak denbora, eta jar dezala dirua. Ikerkuntza, unibertsitatea eta berrikuntza gunea dituen ibarrak autopista modernoena behar du, puntako teknika erabiltzen duena kaltea izan dadin minimoa. Zor zaigu horrenbeste.

MIKEL IRIZAR

# IKER

**SUKALDEAK:** Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43

**BAINUAK:** Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42

**ETA ORAIN ONATIN ERE BAI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48**

FAGOR

